

2023-24

EIGA Programa: EGITASMOA

2022/05/18

UPV/EHUko Irakasleen eta Ikertzaileen Euskarazko Hizkuntza Prestakuntzaren 1. maila: erabiltzaile gaitua (C1). EIGA programa

Testuingurua

1. maila	Erabiltzaile gaitua (C1)	EIGA programa
1. maila	Erabiltzaile gaitua (C1+)	ZUZEN+ programa
2. maila	Erabiltzaile aditua (C2)	ADITU programa
2. maila	Erabiltzaile aditua (C2+)	HOBEKUNTZA programa
3. maila	Eragile aktiboa	AITZINATU programa /TSE programa
3. maila	Eragile aktiboa	Eskuliburuak eta ikasmaterialak sortzeko programa
4. maila	Mentorea	Prestatzailea /zuzentzailea /hizkuntz teknikaria /ikertzailea

EIGA programaren xedea: egitarauaren markoa

Parte-hartzaileen helburuko maila (kurtso bukaerako soslaia) MDADrekin lerratua.

Prestakuntza-programa	I Atala: Curriculuma	II. Atala: Prozesuak	III. Atala: Oinarriak
EIGA (C1)	Irakasleak diskurtso akademikoaren eredu egokia eskainiko die ikasleei, bai banatzen dien materialen bidez, bai haren ahozko jardunaren bidez.	<p>Dokumentu zuzen eta zehatzak erabiliko ditu, irakasleak irakaskuntza-jardueraren euskarri gisa (berak sortuak zein beste iturrietatik eskuratuak), betiere, euskara estandarraren irizpidearen arabera moldatuak.</p> <p>Zabalkunde-mailako argitalpen zientifiko egokiak egingo ditu.</p> <p>Ahoz erregistro zaindua erabiliko du eta azalpen magistral argiak egingo.</p> <p>Eguneroko ohiko harremanetan, egoki erantzungo die ikasleen zalantzei.</p>	Ondo menderatu behar ditu hizkera akademiko zainduaren arauak eta irizpideak.

Parte-hartzaileen helburuko maila (kurtso bukaerako soslaia) HABEren curriculumarekin lerratua.

<p>ADITUAREN LERRUNA:</p> <p>ERABILTZAILE GAITUA (C1)</p>	<p>Adituaren lerrunaren xedea honako hau da: eremu profesional, publiko zein pertsonalean ikasleak era guztietako informazioa euskaraz trukatzeko gai izatea era landu eta jantzian, ahoz zein idatziz, gaia, solaskidearen jarrera edota euren arteko harreman-maila zeinahi delarik, hizkuntza-adierazleak estrategikoki erabiliz eta hizkeraren maila denotatiboa eta konnotatiboa bereiziz.</p> <p>Hain zuzen ere, erabiltzaile gaitua gai da lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako edozein testu (elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak) ulertzeko; baita inguruko herri-hizkeran sortutakoak ere. Eta gai da, era berean, lagunarteko elkarreraginean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak jariatasunez eta eraginkortasunez adierazteko. Ongi egituratutako eta osatutako testu argiak eta zehatzak idazteko gai da, ideia nagusiak eta osagarriak bereiziz, eta, oro har, xedea lortzeko estrategia egokiak aukeratuz. Era berean, bere ikuspuntua luze eta zabal adierazteko gai da, ideia osagarriak eta adibide egokiak emanez.</p>
---	---

Egitaraua ardazteko helburu orokorrak:

- Gertaerak, pasadizoak, gertakari historikoak ulertzea eta gutxieneko zehaztasunez adieraztea.
- Egoeren, pertsonen, tresnen, prozeduren, objektuen eta fikziozko pertsonaia zein gauzen deskribapenak ulertzea eta egitea.
- Norberaren esperientziarekin eta gizarte-gai orokorrekin zerikusia duten ideien eta gogoeten inguruko azalpenak ulertzea eta ematea.
- Gai orokorreki buruzko ahozko zein idatzizko testuetako edukia ahoz zein idatziz azaltzea.
- Elkarreraginezko egoeretan, txandak hartzea, solaskideen esanak eta asmoak egokiro interpretatzea eta ideiak modu egokian adieraztea.
- Hizkuntza-baliabideen oinarriko errepertorioa ezagutzea, eta ekoizpenetan zuzentasun-maila handiz erabiltzea.

EIGA programan landuko diren gaitasunak

EIGA programan, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoan hitzun gaituari aurreikusten zaizkion gaitasunak landuko dira, betiere, diskurtso akademikoaren eredu egokirako eskakizunei begi bat jarrita.

Egitarauaren antolaketa

HABEk homologatutako *tutorizatutako autoikaskuntza* ikastereduaren arabera arituko gara. Alegia, oinarria ikaslea da, IKTen bidezko plataformak erabili daitezke eta ikaskuntza hiru ataletan banatuko da: ikaslearen bakarkako jarduna, mintzamina zein ikasleen arteko elkarreragina lantzeko saioak eta banakako tutoretza-saioak.

Ikastaro mota hauetarako HABEK onartzen dituen moduluak kontuan hartuta, ikastaroa hiruhileko bi txandatan antolatuko da, urria-abendua eta urtarrila-martxoa bitartean gutxi gorabehera. Hiruhileko bakoitzean 75 eskola-ordu egitea aurreikusten da, honela banatuta:

- Banakako jarduneari: 60 h txanda bakoitzean (120 h); 5 h inguru astean.
- Mintzamina elkarreraginean: 12 h txanda bakoitzean (24 h); 2 h hamabostean behin.
- Banakako tutoretza-saioak: 3 h txanda bakoitzean (6 h); 0,5 h hamabostean behin.

Banakako jardunaren oinarria Elkar argitaletxearen *ARIAN C1* liburuak izango dira, baina irakasleak aurrez proposatutako hurrenkeraren arabera landuko dituzte ikasleek bertako unitateak. Idazmina lantzeko proposamenak ere irakasleak gidatuko ditu: 21-22 ikasturtean, adibidez, honela antolatu zen lana lehen hiruhilekoan:

Bakarkako lanerako jarraibideak eta kronograma

Jarraibideak

Arian C1 liburukiak (*Ikaslearen liburua*, *Lan-koaderno*, *Erantzunak + transkripzioak*) bakarkako lanaren oinarri dira, eta modu autonomoan aritzeko aukera ematen dute orokorrean, baina ez beti. Izan ere, badira tartean, *Ikaslearen liburuan* zehazki, idazmena, mintzamina edota irakurmena lantzeko erantzunik gabeko proposamenak. Tutoreak garaiz adieraziko du horrelako lanak egin behar diren ala ez, edo noiz egin/prestatu behar diren.

Orokorrean, hamabostean behin-edo unitate bana egitea aurreikusten da, unitate bera *Ikaslearen liburuan* zein *Lan-koadernoan*. Unitateak ez dira burutuko eskaintzen diren hurrenkeran, kronograma honetan azaltzen den bezala baizik.

Kronograma (*Ikaslearen liburua* (IL) eta *Lan-koaderno* (LK))

1	1. Kirola baino gehiago (unitate bukaeran kirolari bati buruzko biografia idazteko ariketa ez egin)	Urriaren lehenengo hamabostaldian
2	2. Ikasketak eta lana (unitate bukaeran lan-eskaintzari erantzuteko ariketa ez egin)	Urriaren bigarren hamabostaldian
3	4. Ondo ibili (unitate bukaerako iritzi-artikulua ez egin)	Azaroaren 2tik azaroaren 22ra
4	6. Artista hutsa zara	Azaroaren 23tik abendura bitartean

Ikusten diren beharren arabera, hutsune jakinei erantzuteko, *Lan-koadernoko* proposamen espezifikoak egingo dira tutoretza saioetan, aurreikusitako unitateen hurrenkerari begiratu gabe.

Idazmena

Idazmenaren lanketak bakarkako egitekoaren zati garrantzitsu bat hartuko du ikastaroan, besteak beste, nork bere kabuz egin beharreko lanaren eta lortutako mailaren ebaluazio-tresna nagusietako bat izango delako. Ezin ahaztu, gainera, C1 egiaztatzeko prozesuetan (deialdietan), trebetasun hau izaten dela buruhauste gehien sortzen dituen.

Hortaz, *Arian C1* *Ikaslearen liburukian* jaso diren azken idatzizko egitekoen ordez, beste batzuk (edo haien moldaketak) proposatuko dira.

Zenbat: bost edo sei testu urritik abendura, lan erritmoaren arabera. Ebaluazio positiboa lortzeko, gutxienez lau lagin aurkeztu beharko dira.

Prozedura: hamabostean behin, **Idazmena** izeneko atalean, lana egiteko gaia eta egoera zehaztuko dira. Lotura izango dute aurreko hamabostaldian **Arian C1** **liburukietan** jorratutako gai eta edukiekin. Hortaz, espero da bakarka landutako baliabideak (diskurtsiboak, linguistikoak...) testuetan erabiltzea, barneratzen joateko eta idazmena orokorrean garatu eta hobetzeko.

Testuen zuzenketarako irizpide orokorrak: C1 egiaztatzeko proban aplikatzen direnak.

Egokitasuna

Eskutatuko gai, solaskide eta xedearen araberrako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Kurtsoan aurrera goazen neurrian gero eta pisu handiagoa hartuko dute azterketako denbora eta luzera eskakizunak:

Idazlana egiteko gehienez 90 minutu.

Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dira.

Mintzamen-saioak talde txikitan egingo dira (ahal bada, bost ikasle gehienez). 21-22 ikasturtean, adibidez, honela antolatu zen lana lehen hiruhilekoan:

Mintzamen saioen antolaketa eta aurrelana

Zazpi mintzamen talde osatuko dira kurtsoaren hasieran (Google Calendar erabilia), eta bakoitzak guztira **2 orduko 6 saio** izango ditu urritik abendura, aldeztatik aurretik finkatutako egutegiaren arabera.

Ikasle kopurua: taldeak **bosnaka** antolatuta egongo dira. Hala ere, eta aurretik jakinarazita, seigarren lagun bat onartuko da agenda-arazoak konpontzeko. **Aldaketa** egin ahal izateko, **aurretik eskatu behar zaio aukera irakasleari.**

Helburua: mintzamenaren alderdi guztiak lantzea zein aberastea, hainbat estrategia kontuan hartuz.

Baliabideak: **Arian C1 ikaslearen liburua** proposatzen diren egitekoak izango dira mintzasaioen oinarrietako bat, **Zeure txanda** etiketa dutenak, hain zuzen. Horrez gain, tutoreak **Materiala izeneko karpeta** idatzizko zein entzutezko agiriak edota haien loturak, galdetegiak, fitxak... era askotako euskarriak bilduko ditu mintzasaioak bideratzeko. Helburu espezifikoaren bat betetzeko atazak izango dira.

Prozedura: tutoreak mintzasaioaren aurreko astean iragarriko du plataforma digitalean edo e-postaz zer egingo den bertan, eta rol edo lan espezifikoak banatu behar baditu, kide bakoitzari seinalatuko dio zer egin behar duen (testu jakina irakurri edo entzun...).

Mintzamen-saiotarako kanala: Jitsi meet.

Banakako tutoretza-saioak, berriz, eredu honen antzera antolatuko dira:

Tutoretza saioen antolaketa

Ikasle bakoitzak **ordu erdiko 6 tutoretza** izango ditu urritik abendura (guztira 3 ordu), hamabostean behin, aldeztatik adostutako hitzorduen arabera.

Hitzorduak erreserbatzeko tutoreak hitzordu-sorta proposatuko du **Google Calender** erabilia eta bakoitzarekin tutoretza-agenda bat adostuko du, ahalik eta finkoena.

Helburua: **ARIAN C1** liburukietako lanean, mintzasaioetan zein idazlanetan sortutako zalantzak argitzea, egindako lanaren ebaluazioa egitea eta orientabideak eskaintzea.

Prozedura: tutoreak ikaslearen lanak izango ditu ardatz horien jarraipena egiteko. Beraz, **ezinbestekoa** da **jarritako eperako** aurretik eskatutako **lanak eginak izatea, batik bat idazlanak.**

Tutoretza saioetarako kanala: **Jitsi Meet.**

Aurreko jarraibide-orrietan aipatzen diren egutegiaren laburpena:

Egitaraua aurrera eramateko baliabideak

Aipatu bezala, Elkar argitaletxearen *ARIAN C1* liburukiak beharko ditu ezinbestean ikasleak bakarkako lanean aurrera egiteko. Horrez gain, aurreko atalean deskribatutako asmo guztiak bideratzeko HABEren IKASTEN plataforma (Moodle) erabili dugu orain arte, nagusiki Google Meet edo Jitsi Meetekin konbinatuta, baina Classroom, BigBlueButton edo besterik ere izan daiteke oinarria. Euskarriaren irudia:

The screenshot shows a Moodle course page for 'EIGA-C1 NIUA' (Autonbeakuntza 2021-2022). The page layout includes:

- Top Section:** Course title and a calendar for the 2021-2022 school year. A central graphic reads 'EIGA Programa 2021/22'.
- Navigation:** Links for 'Euskarria', 'EUSKARRIAREN LEFEMANU LITFIDIA: JTSI MEET', and 'EUSKARRIAREN NIUA'.
- Mintzamen saioak taldeka:** A section for group speaking sessions with links for 'Talde baliabideen mintzamen saioak' and 'Materiala'.
- Tutoretzak:** A section for tutoring sessions with a link for 'Aholketa'.
- ARIAN C1: Ikaslearen liburua eta lan koademoa:** A section for the student's book and work portfolio, featuring images of the 'ARIAN C1' books.
- Materiala:** A list of materials organized by week:
 - 1- Urriaren 4tik 8rako saioak
 - 2- Urriaren 18tik 22ra
 - 3- Azaroaren 2tik 5era
 - 4- Azaroaren 16tik 19ra
 - 5- Azaroaren 30etik abenduaren 2ra
 - 6- Abenduaren 9tik abenduaren 15era
 - 7- Urtarrilaren 11tik urtarrilaren 13ra
 - 8- Urtarrilaren 25etik urtarrilaren 27ra
 - 9- Otsailaren 8tik 10era
 - Otsailaren 22tik 24ra

Mintzamina lantzeko ataza baten eredia izan daitekeena:



2. Ikasketak eta
lana-2.pptx

Idazlanerako proposamen-eredua:

LANBIDE- HEZIKETA ALA UNIBERTSITATE-IKASKETAK

Egoera:

Gaur egun, zaila da lana topatzea, areago gazteentzat. Hori dela eta, gehienek ikasten jarraitzea erabakitzen dute DBH edo Batxilergoa bukatutakoan. Hala ere, ez dute argi izaten zein bide hartu: lanbide heziketarena edo unibertsitate-ikasketena.

Eginkizuna:

Ikasten jarraitu nahi duen gaztea zara, baina ez duzu argi zer aukeratu. Horregatik, eskolako orientatzaile pedagogikoari gutuna idaztea erabaki duzu aholkua eta informazioa eskatzeko. Bertan, adierazi zergatik jo duzun harengana, azaldu zer abantaila eta desabantaila ikusten dizkiezuen lanbide -heziketari eta unibertsitate-ikasketei, eta eskatu zure zalantzak eta kezak argitzeko informazioa.

Lagungarriak:

- Ikasketen iraupena (unibertsitateko oinarritzko ikasketak bukatuta, masterrak, doktoretzak...)
- Lanbide-heziketa amaitutakoan, unibertsitatera joateko aukera.
- Unibertsitate-ikasketek prestigio handiagoa. Lanpostu hobea.
- Lanbide-heziketaren bidez, errazagoa da lan-merkatuan sartzea.
- Praktika eta teoriaren arteko oreka da enplegurako biderik fidagarriena.

Metodologia

EIGA programako mintzamen-saioetan bereziki ikaskuntzarako metodologia parte-hartzaile, kooperatibo eta aktiboa erabiliko da, testu errealean lanketan, ikasleen arteko elkarreaginean eta haien testu-ekoizpenetan oinarritutakoa. Horrez gain, nork bere aldetik, modu autonomoan egin beharreko jarduerak pisu handia izango dute. Irakasleek dinamizatzaile eta gidari-lana egingo dute; era berean, parte-hartzaileen jarraipenaz arduratuko dira. Arreta berezia jarriko zaie proposatutako jardueri aurre egitean parte-hartzaileek agertzen dituzten zalantzei eta zailtasunei.

Ebaluaziorako eta parte-hartzaileek helburuak erdietsi izana erakusteko

Ebaluazioa, etengabea eta pertsonalizatua izango da. Oro har, etengabeko feedback nagusia tutoretzen bidez eskainiko da, baina ikasgela birtualean ere saiatuko gara arazo eta zalantza orokorrei erantzuten.

Egitarraren antolaketa azaldu dugunean esan bezala, txanda bakoitzean zehar ikasleek bakarka bospasei testu idaztea aurreikusten da eta mintzasaioetan beste hainbeste ahozko lagin sortzea. Ikaslearen portfolioa osatuko duten lan horiek izango dira tutoretzen ardatz nagusia, eta launa lagin positibo egin beharko dituzte gutxienez, ahozkoak zein idatziak; betiere, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak hiztun gaituari aurreikusten dion mailaren arabera.

Ikastaroko irakasleek balioetsiko dituzte ebidentzia horiek eta portfolioaren ebaluazio-agirian jasoko dute haien irizpena (GAI/EZ GAI), baita asistentzia ere. Agiri horretan bi ataletan bereziko dira ahozko komunikazioari dagozkion lorpenak eta komunikazio idatziari dagozkionak. Programa arrakastaz gainditutzat jotzeko, eskatutako ebidentzien %75ek bete beharko dituzte mailari dagozkion eskakizunak. Erabiliko diren taulen adibideak jaso ditugu ondorengo orrian.

Edonola ere, kurtsuan zehar hiru ebaluazio-une berezi aurreikusten dira:

PROGRAMAZIOAREN OINARRIA ARIAN C1 LIBURUKIETAN JASOTAKOA DA

01. KIROLA BAINO GEHIAGO	02. IKASKETAK ETA LANA
<p>Kirol-munduarekin lotutako hainbat erreportaje, berri, elkarrizketa... aztertzea eta lantzea, unitatearen bukaeran, gustuko duzun kirolari baten biografia idazteko <i>Wikipedia</i> entziklopedia askean.</p>	<p>Ikasketei eta lanari buruzko hainbat elkarrizketa, erreportaje eta iritzi-artikulu aztertzea eta lantzea, unitatearen bukaeran, lan-eskaintza bati mezu elektronikoz erantzuteko.</p>
<p>A. KIROLA, OSASUNA ETA KIROL-JARDUERAK</p>	<p>A. ETA ORAIN, ZER NORABIDE?</p>
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Kirola eta Jarduera Fisikoa 2017" <i>Euskadi.eus</i> • "Kirol-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana" <i>Euskadi.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Besteek diotena azaltzeko hainbat egitura: -aren, -(r)en arabera, -(e)nez, noren/zeren ustez, iritzi, aburuz, dio, iruditzen zaio... -(e)la, -(e)lakoan egon. • Ehunekoak: nola idatzi, nola deklinatu. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ESTRATEGIA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Berriak ulertzeko arreta jartzea informazio garrantzitsua ematen den lekuetan: sarreran, titularretan, argazkietan, hitzez hitzeko aipuetan... <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirol-esparruan neska-mutilen jarrerari eta parte-hartzeari buruzko datuak alderatzea eta ondorioak ateratzea, ikastetxe bateko aldizkarian argitaratzeko. 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketari eta unibertsitateari buruzko ohiko galderak. <i>Gazteaukera.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Siglen idazkera eta siglak nola deklinatu. <p>ESTRATEGIA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Galderetan eta erantzunetan gako-hitzetan arreta jartzea. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • EGA azterketa egiteko edo zure intereseko beste edozer egiteko dituzun zalantzak argitzeko, ohiko galderen erantzunak informazio web-guneetan bilatzea.
<p>B. BIZIPEN BERRIAK</p>	<p>B. ESPERIENZIA GELAK</p>
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Jaioterritik urrun" Orbañanos, Mikel. <i>Berria.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Atzizkiak: -(t/d)ar atzizkia. • Zehar-estiloa: -(e)la, -(e)nik, (ea)... -(e)n, -(t)zeko. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Etxetik urrun egindako ekintzaren batean izandako bizipena foro batean idaztea. 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Esperientzia Gelak" <i>Naiz.eus</i> (Bideoa) • "Esperientzia jakintzaz josten" Arratibel, Ainara. <i>Berria.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Denborazko perpausak: (Behin)... -ta/-da, -(e)nean, -(e)z gero, -(r)ik, -takoan/-dakoan. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ESTRATEGIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazio garrantzitsua lortzeko, izenburuan, argazkietan eta lehenengo paragrafoan arreta jartzea. • Komatxoaren arteko adierazpenen aurreko edo ondorengo esaldiei erreparatzea, ideia nagusiak topatzeko. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonen ikaskuntza-esperientzien berri ematen duten erreportajeak edo blogak arakatzea eta zeure esperientziekin alderatzea.
<p>C. ELITEKO KIROLARIAK</p>	<p>C. EUSKAL HERRITIK KANPO LANEAN</p>
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Maialen Chorrauten kirol-ibilbidea. <i>Wikipedia</i> • Maialen Chorrauti elkarrizketa. <i>Berria Telebista</i> (Bideoa) <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Atzizkiak: -tun/-dun. • Hitz-elkarketa: ordea (txapelundunordea...). • Data. • 17 urtez azpiko/gorako, 16-17 urte bitarteko. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gustuko pertsonaia bat aukeratu (kirol-mundukoa, zientzia-mundukoa...) eta <i>Wikipedian</i> berari buruzko informazioa emateko datuak aurreikustea eta gidoi bat prestatzea. 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ane Irazabali elkarrizketa. <i>Hamaika Telebista</i> (Bideoa) <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Denborazko hainbat egitura: duela/orain dela; badira... -(e)la; -(e)nean, -(t)zean; ostean, eta gero, ondoren; (behin)... -dakoan/-takoan; hari eta... arte. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zure ikaskuntza-ibilbidearen eta lan-esperientiaren informazioa antolatzea eta bideo-curriculum batean grabatzea.
<p>D. GARAI BATEKO ERRAKETISTAK</p>	<p>D. LANA ETA FAMILIA UZTARTU NAHIAN</p>
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Erraketista profesionalak" Mujika, Amagoia. <i>Naiz.eus</i> • Agustina Otaolaren biografia. <i>Donostiakirola.eus</i> (Entzungaia) <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aditz-partizipioa + izan/egon, ukan/eduki: hasia zen, ikusia nuen... • Mugagabea aditz bereziekin: joan, aukeratu, izendatu, hasi, egon, hartu, bihurtu, bilakatu. • -eta(ri)ko bat/batzuk, -eneta(ri)ko(a)(ak) • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zure gustukoa den kirolari baten biografia bilatzea eta aztertzea. 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Kontziliazio parekidea lortzeko sei neurri eraginkor" <i>Argia.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baldintzako perpausak: -(t)en ba-, -(e)z gero, -(t)en ez ba-, ezean/ezik. • Adibideak emateko testu-antolatzaileak: adibidez, esate baterako, esaterako, kasurako, hala nola... • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ESTRATEGIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azalpen-testuetan nabarmendutako informazioari erreparatzea. • Iritzi-testuetan paragrafo bakoitzean ideia bat garatzea. • Iritzi-testuaren ohiko egitura: hasierako tesia, argudioen gorputza, ondorioa edo tesi berria <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Berria</i> egunkariko <i>Eztabaida gela</i> atalean, lana, ikasketak, familia eta bizitza pertsonala bateratzeko zailtasunei eta laguntzei buruzko iritzia edo iruzkina idaztea.
<p>ZEURE TXANDA</p>	<p>ZEURE TXANDA</p>
<p>• Gustuko kirolariren baten kirol-ibilbidea edota biografia idaztea, <i>Wikipedia</i> entziklopedia askean argitaratzeko.</p>	<p>• Lan-eskaintza bati erantzutea mezu elektronikoz.</p>

03. HAINBAT TXOKO	04. ONDO IBILI!
<p>Euskal Herriko hainbat txokorekin lotutako kantak, deskribapenak, bidaia-gidak... aztertzea eta lantzea, unitatearen bukaeran, gustuko leku bati buruzko bidaia-gida idazteko, bidaia-aldizkari batean argitaratzeko.</p>	<p>Turismoarekin zerikusia duten irratsaioak, erreportajeak, ordenantzak, iritzi-artikuluak... aztertzea eta lantzea, unitatearen amaieran, herriko aldizkarian zure iritzia emateko, turismoari mugak jarri edo ez jarri eztabaidari erantzunez.</p>
<p>A. MAITE DITUDAN BAZTERRAK</p>	<p>A. BIDAIATZEKO HAINBAT MODU</p>
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Gure bazterrak" poema musikatua. Joan Artze, Mikel Laboa. • Oñati: historia, ondarea, tradizioa eta natura biltzen dituen herria" <i>Hamaika Telebista</i> (Bideoa) <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erlatibozko perpausak: -(e)n. • Dagokionez ≠ dagokionean. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Katixa Agirrerren "Atertu arte itxaron" liburua irakurtzea. 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Oporrak merke-merke" <i>Lagun aro, Albisteen bloga</i> (Entzungaia) • "Couchsurfing-a, wwoof sarea, etxea trukatzeko" <i>Goiena.eus</i> • "Oso bizipen gogorra izan da, baina, aldi berean, aberasgarria" <i>Hiruxulo.hitza.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norbera, nor bere. • Orainaldiko eta lehenaldiko aditz-denborak. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ESTRATEGIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aholkuak emateko hainbat estrategia: esaldi laburrak eta zehatzak, aginterako aditzak, ahalerako aditzak... erabiltzea. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jon Arretxeren "Zazpi Kolore" bidaia-liburua irakurtzea.
<p>B. ARABA, ZAZPIGARREN ALABA</p>	<p>B. ETXEBIZITZA TURISTIKOAK</p>
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arabari buruzko galdetegia. <i>Wikipedia, Gaindegia.eus</i>. • "Arabako Errioxa" <i>Arabako errioxa.eus</i> (Entzungaia) • "Patatak errioxar erara" <i>Martinez, Iker. Berria.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • delakoa, direlakoa; izeneko(a)(ak); deituriko(a)(ak). • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zure gustukoa den inguru edo paraje bateko plater tipiko baten errezeta idaztea bidaia-blog batean. 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Udatiarrek zaruaztarren etxeetan alokairuan" <i>Ahotsak.eus</i> (Bideoa) • "Udatiarrek utzitako diruak egindako mesedeak" <i>Ahotsak.eus</i> (Bideoa) • "2018tik, ezin izango dira etxe turistiko gehiago erregistratu Donostiako Parte Zaharrean" <i>Velte, Samara. Berria.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahalera etorkizunean. • Behar izan aditza etorkizunean. • Baldintza erreala. • "Izan ezik" esapidea. • Denbora-aditzondoak: jadanik, dagoeneko ≠ honezkeru. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herriko aldizkarian etxebizitza turistikoari buruz zer dakizun eta zer iritzi duzun idaztea.
<p>C. LAPURDIKO HAINBAT BAZTER</p>	<p>C. TURISTA ALA BIDAIARIA?</p>
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hendaia inguruko txangoa. <i>Argia.eus</i>. • <i>Lapurdiako kortsarioa eta munstro-ehiztariak</i> "Apaiz Gerrillariaren ezkutalekua". Izagirre, Ander. <i>Elkar</i> (Entzungaia) <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Moduzko perpausak: -(e)z; -ta/-da; -(r)ik; -(e)l(a)(rik). • Erlatibozko perpausak: -tako/-dako. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gustuko duzun inguru batean txangoa egiteko ibilbidea idaztea bidaia-blog batean. 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Urruneko jende exotikoa, bidaiariak eta turistak" <i>Narbaiza, Leire. Gipuzkoako hitza</i> • "Bidaia" <i>Lertxundi, Angel. Berria.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Nominalizazioa: -t(z)ea, -t(z)eari, -t(z)en. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ESTRATEGIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Iritzi-testuetan, galdera erretorikoak erabiltzea, iritzia emateko eta irakurleari pentsarazteko. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Bidaia" izeneko iritzi-artikulu irakurri ondoren, zeure iritzia idaztea, idazlearekin ados zauden ala ez adieraziz.
<p>D. BIZKAIA MENDEBALDEA</p>	<p>D. TURISMO JASANGARRIA</p>
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enkarterriak eskualdea. <i>Wikipedia</i> • "Balmaseda herriko txokoak" <i>Hamaika Telebista</i> (Bideoa) • "Karrantza" <i>Visitenkarterri.com</i> • "Pozalagua, sakontasuneko harribitxia" <i>Zabala, Jonebati. Naiz.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Konparazio-perpausak: -(r)ik... -(e)n(a)(ak), baino... -ago(a)(ak), bezain, adina/beste/ bezainbeste (+ ko). • Neurriak: 4 m zabal, 6 metro luzeko, 25 metroko luzera, 50 cm-ko diametroa... • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gustuko duzun espazio baten deskribapena egitea bidaia-blog batean: eraikin batena, musika-areto batena, antzoki batena... 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Turismo masiboaren kontrako aldarrikapenak" <i>Argia.eus</i> • "Turismo jasangarriaren oinarriak" <i>Guaixe.eus</i> • "Turista arduratsuen printzipioak" <i>Gernika-Lumo.net</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Subjuntiboa aginte-perpausetan: joan daitezela, har dezatela, joan nadin, ikus dezagun... • Behar izan aginte-perpausetan. • Aginte-perpaus jokatuak eta jokatu gabek. • Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalaren webguneko iradokizunak atalera idaztea, zure inguruan dagoen turismo-eredua hobetzeko proposamenak eginez.
<p>ZEURE TXANDA</p>	<p>ZEURE TXANDA</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Gustuko duzun leku bati buruzko bidaia-gida idaztea, bidaia-aldizkari batean argitaratzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Turismoagatik herri txikiek izaten duten masifikazioa dela eta, turismoari mugak jarri behar zaizkiela esaten dutenekin ados zauden ala ez adieraziz, herriko aldizkarian zure iritzia idaztea.

05. OSASUNA, MUNDUKO ONDASUNA	06. ARTISTA HUTSA ZARA
Osasunarekin lotutako hainbat erreportaje, berri, elkarrizketa... aztertzea eta lantzea, unitatearen bukaeran, gaixotasun bati buruzko azalpena ahoz emateko herriko zahar-etxean.	Euskal kulturarekin lotutako hainbat elkarrizketa, azalpen, sinopsi, kritika aztertzea eta lantzea, unitatearen bukaeran, film, antzezlan, liburu edo disko baten inguruan blog batean idazteko.
A. TELEFONO MUGIKORRA, OSASUNERAKO KALTEGARRIA?	A. BOTA BERTSOA
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> "Zalantzak sortu ditu mugikorrek eta minbizia lotzen dituen azken ikerketak" Galarraga, Ana. <i>Zientzia.eus</i> <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> Erreferentziak egiteko sinonimoak edo baliokideak eta hirugarren graduko erakusleak erabiltzea. Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <i>Zientzia.eus</i> web-orrialdean sartu eta gustuko duzun gaiari buruzko artikulua aukeratzea eta irakurtzea. 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> "Bertsolaritza I" <i>Euskal Herria Museoa. Gernika-Lumo</i> (Bideoa) "Bertsolaritza II" <i>Euskal Herria Museoa. Gernika-Lumo</i> (Bideoa) "Zortziko txikia. Igor Elortza eta Maialen Lujanbio" <i>Bertsoa.eus</i> (Bideoa) Maialen Lujanbiori elkarrizketa <i>Berria Telebista</i> (Bideoa) <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> Gaiarekin lotutako lexikoa. Bertso motak, errimak... <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <i>Bertsoa.eus</i>-en sartu eta bertsoak entzutea; animatuz gero, bertso bat idaztea.
B. KIRIOAK DANTZAN	B. LITERATURA
<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> "Estres-maila neurtzeko Holmes eta Rahen-en eskala" <i>Consumer.eus</i> "Nerbioek eragindako digestio-arazoak" Agirre, Jabier. <i>Osatuberrri</i> aldizkaria Lagunarteko eskutitza. "Medikuaren kontsultan" (Entzungaia) <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> <i>Ohi</i> partikula. <i>Eragin</i> aditza. Ahalera. -t(z)ea nominalizazioa. Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ESTRATEGIA:</p> <ul style="list-style-type: none"> Azalpen-testuetan hitz-gakoei erreparatzea, bilatzen duguna azkarrago topatzeko. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ezagun bati osasun-aholkuak ahoz ematea. 	<p>TESTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> "<i>Nola heldu naiz ni honaino</i>. Miner, Kattalin" Aiora Probatxoa youtuberra (Bideoa) <i>Nola heldu naiz ni honaino</i>, Miner, Kattalin. Liburuaren sinopsia. <i>Noticiasdenavarra.com</i> Elkar liburu-dendako dendariari elkarrizketa (Entzungaia) <i>Azala erre</i>, Sarriugarte, Danele. <i>Elkar</i> Liburuaren pasarte <p>KONTUAN HARTU:</p> <ul style="list-style-type: none"> Garaia adierazteko: 70eko hamarkada... -(r) buruz dihardu, -(r) buruz(ko) historia kontatzen da... Gaiarekin lotutako lexikoa. <p>ZEURE TXANDA:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskaraz irakurri duzun liburu baten ahozko azalpena egitea.
C. ZER JAN, HURA IZAN	C. KANTUAN
